BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO GALETARAKO ARGIZTAPEN-MATERIALAREN ALOKAIRUA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Kursaaleko auditoriumean egingo diren Inaugurazio eta Klausura galetarako, eta egin daitezkeen Donostia Saria(k) emateko galetarako argiztapen-materiala hornitzea da, alokairu-erregimenean, muntaketa, desmuntaketa, laguntza teknikoa eta mantentze-lanak barne hartuta.

Honako eginkizun hauek beteko dira:

a) Argiztapen-materiala alokatzea Kursaalen egingo diren Inaugurazio eta Klausura galetarako, eta egin daitezkeen Donostia Sari(ar)en galak ospatzeko, kontratua gauzatzeko beharrezko diren eta plegu honetan deskribatutako material tekniko guztien garraioa barne.

b) Teknikari-zerbitzua, muntaketarako, desmuntaketarako eta laguntza teknikorako, plegu honetan adierazitako banakapenaren arabera, eta Zinemaldiaren Ekoizpen departamentuak emandako argibideei jarraiki. Lan horiek egiteko kontratu honen mende alokatutako materiala eta Kursaaleko materiala baliatuko dira.

c) Matxuratutako edo egoera txarrean iritsitako material teknikoa berehala konpondu eta/edo ordezkatu beharko da. Hori horrela, Zinemaldiak eskubidea izango du exijitutako kalitate-estandarrarekin bat ez datozen materialak berehala ordezkatzea eskatzeko, gabezia teknikoak, are estetikoak ere, direla medio.

II.- BEHARREZKO MATERIALAK

Kontratuak biltzen dituen zerbitzuak eman ahal izateko, honako material hauek erabili eta kontratura atxiki beharko ditu esleipendunak:

DESKRIBAPENA	KOPURUA	OHARRAK
Arri 5000 W Studio Fresnel Pole Op	14	Guztiak sareta gorri erdiarekin
ROBIN Iforte	24	HFE-CRI 96
BMFL FollowSpot	1	
ROBIN ESPRITE PROFILE	14	
Merlin	2	
Skypanel S60-C	4	
Source 4-15/30 Zoom	16	
ETC DAYLIGHT -25/50	9	
Arri fresnell L7-C	4	Atondoko trussean zintzilik
VELVET MINI 2	10	Kanpoko photocall-erako, alfonbra gorria
Arri Skypanel S60-c	18	4 tripodeetan, atondoan, 2 zintzilik, prentsaurrekoen aretoan, 12 Kursaaleko atondoko truss zirkularrean ****12 fokuren iritsiera, irailaren 16an, larunbata**
ROSCO CINEGEL:		
R3208 QUARTER BLUE BIRIBILKIA	1	
R3204 HALF BLUE BIRIBILKIA	1	
R3408 ROSCOSUN ½ CTO ORRIAK	3	
R3409 ROSCOSUN ¼ CTO ORRIAK	3	
R3410 ROSCOSUN 1/8CTO ORRIAK	3	
R3402 ROSCO N.3 BIRIBILKIA	1	
R3403 ROSCO N.6 BIRIBILKIA	1	
R3314 TOUGH 1/4 MINUSGREEN ORRIA	3	

R3318 TOUGH 1/8 MINUSGREEN ORRIA	3
R3028 TOUGH ½ WHITE DIFFUSION BIRIBILKIA	1
R3028 TOUGH ¼ WHITE DIFFUSION BIRIBILKIA	1
ROSCO SUPERGEL R13 STRAW TINT BIRIBILKIA	1
CINEFOIL	1
LEE FILTER 253 HAMPSHIRE FROST BIRIBILKIA	1
Euskarriak, etab.	

Hemen zehaztutako modeloak eta markak **orientagarriak** dira. Edozein aldaketa **2. gutun-azalean zehaztu beharko da, dagokion atalean**.

Arri Skypanel S60-c 18 fokuetatik **12 irailaren 16rako, larunbata, iritsi behar dira**.

III.- BEHARREZKO GUTXIENEKO LANGILEAK

Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko, gutxieneko langile hauek beharko dira:

1.- Zerbitzuaren koordinatzailea

Ekoizpen sailaren aginduetara, nagusiki, honako eginkizun hauek izango ditu:
- Zinemaldiaren solaskidea izatea.
- Muntaketaren aurreko bileretara joatea.
- Talde teknikoaren ardura hartzea, zerbitzuaren funtzionamendu eta jardunbide zuzena bermatuta.
- Galak ematen dituzten telebista-kateekin koordinatzea eta, beharrezkoa izanez gero, baita Zinemaldiko Telebistarekin eta web orriarekin ere.

2.- Talde teknikoa

- Arduradun tekniko bat, muntaketa egingo den egun guztietan, galetan eta desmuntaketan.
- Teknikari bat, muntaketa egingo den egun guztietan, galetan eta desmuntaketan.
- Gutxienez hiru teknikari, muntaketa eta desmuntaketa lanetarako.

Langileen lan-antolakuntza Zinemaldiko ekoizpen departamentuak finkatuko du.

OHARRA: Argiztatzailea eta mahaiko langilea Zinemaldiak kontratatuko ditu zuzenean. Hortaz, lizitazio honetatik kanpo gelditzen dira.

IV.- AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

Jarraian Donostia Zinemaldiaren 71. Ediziorako aurreikusitako egutegia zehazten da. Erreferentziatzat hartzeko baliagarria da soilik.

- **Irailaren 18a:** Muntaia

- **Irailaren 19a:** Muntaiaren jarraipena eta probak

- **Irailaren 20tik 21era:** Muntaiaren jarraipena eta entseguak

- **Irailaren 22a:** Entseguak eta Inaugurazio Gala.
- **Irailaren 30a:** Klausura Gala
- **Urriaren 1a:** Desmuntaketa

Oharra: Urriaren 1ean, irailaren 30eko klausurako filma amaitu eta berehala, lurreko elementu guztiak desmuntatuko dira.